

ERABAKIA, 2014ko ABENDUAREN 16koa, UPV/EHUKO GERENTEARENA, HAINBAT LANPOSTU ZERBITZU EGINKIZUNETAN ALDI BATEZ BETETZEKO DEIALDIA IRAGARTZEKO DENA.

EGITEZKO AURREKARIAK

Aurreikuziz Erabaki honen eranskinean zehazten diren lanpostuek, utzik geldituko direla edota orain lanpostuan dagoena ordezkatzeko beharra izango dela aurreikusita eta egoera hauek zuzenbideratzeko, Gerentzia honek plazak betetzeko zerbitzu eginkizunaren bitartez ekiteari erabaki du.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.-Zerbitzu-betekizuna honako arautegietan zehazten da: Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea, 190/2004, urriaren 13ko Dekretuan, Euskal Herriko Unibertsitateko Langileen Lan-Baldintzak Arautzeko Akordioaren 65,2. artikuluan (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua) eta administrazio eta zerbitzuko pertsonaleko funtzionarioaren zerbitzu-betekizunen prozedura barematua haztatua ezartzeko AZP Funtzionario Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioari jarraituz. Akordiaoa Gobernu Kontseiluak berretsi zuen 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez (2014ko abuztuko 27ko EHAAn)

Bigarrena.- Era berean, honako lege hauek aplikatu behar dira: Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Bateratuaren 30/1992 Legea (azaroaren 26koa), urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuena; gainerako arau orokorrak eta eurekin bat datozen beste guztiak.

Hirugarrena: Gerentziak eskumena dauka erabaki hau emateko Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko den 2013ko urtarrilaren 30eko erabakiarekin bat etorritik (2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian);

Hori guztia kontuan hartuta, eman dizkidaten eskumenen babesean, honakoa

ERABAKI DUT

Bakarra.- Erabaki honen eranskinean zehazten diren lanpostuak aldi baterako zerbitzu-betekizunetan beteko direla iragartzea.

OINARRIAK

Lehenengoa: Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura, administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa izango da. Akordia hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn);

Aipatutako erabakia ikus daiteke Administrazio eta zerbitzuetako langiletako web orrialdean. Hautaketa eta hornikuntza. Barne deialdietako atalean.

Bigarrena: Eskabideak aurkezteko epea web orrian argitaratuko hurrengo egunetik 5 laneguneko epean amaituko da, eta pertsonalerako gerenteordetzara zuzendu beharko dira, Euskal Herriko Unibertsitateko erregistro orokorrean aurkeztuz edo, era berean, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio-Prozedura bateratuari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (azaroaren 27ko Estatu Aldizkari Ofizialean) 38.4. artikuluan jasotako beste edozein bide erabiliz.

Euskal Herriko Unibertsitateko erregistroak zehazten dira Euskal Herriko Unibertsitateko 2012ko maiatzaren 16ko erabakian daude jasota (2012ko ekainaren 18ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian), eta Interneteko helbide honetan: http://www.ehu.es/erregistroko_bulegoak.html

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako campusetan kokatutako erregistroen irekiera-ordutegia, astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 13:00etarako izango da, goizeko ordutegian eta 15:00etatik 16:30etara arratsaldeko ordutegian. Ostiraletan, udako lanaldian eta Aste Sainduko eta Eguberrietako txandetan, ordutegia 9:00etan hasi eta 13:00etan amaituko da.

Hirugarrena: Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean lehiatzaileek baldintza eta betebeharrak guztiak beteta izan beharko dituzte.

Laugarrena: Balioztatu beharreko merezimenduak administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioaren 6. artikuluan azaldutakoak izango dira. Akordio hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn) araututakoak izango dira,

Eskariak aurkezteko epearen amaierako egunean betetzen diren merezimenduak besterik ez dira aintzat hartuko.

Bosgarrena: Eskaerarekin batera, izangaiek eskaturiko baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte, baita lehiatzaileek beste administrazio publikoetan emandako zerbitzuak, Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak eta titulu akademikoak egiaztatu behar izango dituzte, 2014ko uztailaren 1eko akordioaren 5.4 artikuluan esandaka salbu.

Euskal Herriko Unibertsitateak ofizioz balioetsiko ditu antzinatasunari, Euskal Herriko Unibertsitateko lan eginiko zerbitzuei eta maila pertsonal finkatuari dagozkion merituenak.

Seigarrena: Deialdi honetan parte hartzen dutenek uko egin diezaiokete deladian parte hartzeari behin behineko puntuazioaren aurkako erreklamazio aurkezteko epea amaitzen den eguna arte. Gero, esleipenari uko egiten badiote, AZP funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak deitu eta esleitzeko prozedura arautzeko den akordioaren 4.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

ERREKURTSOAK

Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka berraztertze-errekurtsa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean, hilabeteko epean edo, nahiago bada, zuzenean jarri ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsa jurisdikzio horretan eskumena duen epaitegian; horretarako hilabete bi egongo dira, erabaki hau administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura arautzen duen 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioak jarraituz, 2014ko uztailaren 10eko Gobernu Kontzeilauran erabakiaren bidez berretsia. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn) 5.2. artikuluan adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Leioan, 2014ko abenduaren 16an

GERENTEA

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia (2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria).

Miren Lorea Bilbao Arteche

